


Año XLVIII urtea
Nº 90. zk.
2016



CUADERNOS de Etnología y Etnografía de Navarra

SEPARATA

Goizuetako danbolintero batzuk (1608-1729)

Patziku PERURENA

Goizuetako danbolintero batzuk (1608-1729)

Algunos tamborileros de Goizueta (1608-1729)

Some drummers from Goizueta (1608-1729)

Patziku PERURENA

Recepción del original: 08/10/2016. Aceptación definitiva: 15/11/2016.

LABURPENA

Lan honek egilea Goizuetako herri-musikaz egiten ari den ikerketaren lagin modukoa ematen digu, batik bat ahozko eta Goizuetako Udal Artxibotik ateratako datuetan oinarritua, eta, kasu honetan, danbolinei buruzkoa. Ba omen dira datu askoz ere zaharragoak, esate baterako Iheragako Soroan bilduta erabakitzentzen Mairu/Kristau/Merio festa-dantza hirukoitz zaharra. Halakoak, baina, ikerlan osoa argitaratzean ikusi beharko. Izan ere, baliteke erregeon hiru emazte erreginak maiatzeko «hiru komaio» sonatuak izatea.

Gako hitzak: Goizueta; herri-musika; danbolinak; atabaleroak.

RESUMEN

El autor de este trabajo nos adelanta una muestra de la investigación que lleva a cabo acerca de la música popular de Goizueta, basándose principalmente en fuentes orales y en datos del Archivo Municipal de Goizueta, y en este caso concreto, sobre algunos tamborileros. Existen por lo visto datos mucho más antiguos, como es sobre la triple danza festiva de moros, cristianos y merinos que se convocabía en Iheragako Soroa, aunque habrá que esperar a la publicación de la investigación completa para conocer esos datos. Asimismo, puede que las «tres reinas» esposas de dichos «reyes» fueran las famosas «hiru komaio» de mayo.

Palabras clave: Goizueta; música popular; tamborileros; atabaleros.

SUMMARY

The author of this work offers a preview of his research into the popular music of Goizueta, based mainly on oral sources and data from the Municipal Archives of Goizueta, and focuses on some drummers. Apparently much older data exists, such as information on the triple festive dance of Moors, Christians and «Merinos» held in Iheragako Soroa, but we will have to wait for the publication of the complete investigation to find out. Likewise, the «Three Queens» of the «Kings» may have been the famous «hiru komaio» of May.

Keywords: Goizueta; popular music; drummers; kettle drummers.

Sumario: 1. JOANES DE LEYÇA DANBOLINA (1623-1643). 2. PELEGRIN ATABALARIA (1626-1635). 3. MARTIN LEGARRETA DANBOLINA (1670-1729). 3.1. Danbolin borda, Martin Legarretak egina (1690). 3.2. Martin Legarretaz datu batzuk. 3.3. Zoribeltzeko morboaz, azalpen batzuk. 4. BIBLIOGRAFIA.

Euskal Herri osoan bezalaxe, Goizuetan ere danbolina izan da Udalaren kontura menderik mende herria alaitu duen herri-musikaririk behinena, eta atabalarekin batera, horixe aztertuko dizut aurrena sail honetan. Deus baino lehen, esan gaur *txistulari* izenez ezagutzen dugun musikariak izen asko izan dituela historian zehar: *danbolintero*, *danbolin*, *ttuntunero*, *zilibitero* eta abar euskaraz, eta *jular*, *juglar*, *tamborín*, *tambolintero* eta beste erdaraz. Baina, kontuak nolabait mugatzearen, esan daiteke *txistulari* izena normaldu egin zela euskal abertzalegoak soinu-tresna hori euskal ikerrik zaharrentzat eta kuttunentzat hartu zuenetik, han nonbait XIX. mende bukaeratik honantz.

Hala ere, usadio zaharreko hiztun agrafoak, eta musika-tresna zahar hori menderik mende belarriz ikasi eta jo duenak, *danbolin* deitu izan dio maizenik. Horren lekuko, *Danbolintxo* edo *Danbolinborda* etxe-izenak, edo *Danbolin iturri*, *Danbolin zoko* eta bestelako toki-izenak ditugu Goizuetan bertan. Eta non ez? (Ikus, besteak beste, *Txistulari* aldizkaria, 153. zkia., 14. or.). Horregatik, nik ere *danbolin* deituko diet lan honetan, batez ere dokumentuetan hala ageri direnei eta eskolatu gabeko *danbolin* zaharrei.

Nik aztertu ditudan datuak, batik bat Goizuetako Udal Artxibokoak, 1608an hasten dira zaharrenak, eta handik 1667. urtera bitartekoak sartu ditut aurreneko atal honetan, baina batez ere aldizka kanpotik etorritako danbolinenak, nahiz tarteka herrikoren bat edo beste ere azaldu. Dena dela, dudarik ez egin askoz ere lehenagoko datuak azalduko direla Goizuetako danbolinei buruz, ikerlea artxibo zaharrak astinduz joan ahalean. Jakizu, halere, kortesiazko sail honen ondoren, banan-banan aztertuko ditudala aldian aldiko danbolinon kontuak, han nonbait 1623 ingurutik hasi eta egundainokoan, Goizuetako herri-musikaz egin asmo dudan ikerlan oso batean.

Beste aldetik, ezin hasi ni hemen menderik mende danbolinak gure herri-musikan izan duen importantzia sekulakoa azaltzen. Hori dagoeneko nik baino askoz hobeki

egin duten adituak bai baitira erruz. Hala ere, gutxieneko irudipen bat egiteko, honatx Jose Inazio Antsorenaren hitzak, labur zur neure gisara egokituak:

Danbolina bere inguruko gizartearekin erabat lotuta zegoen, eta antzinako kultura eta ohitura zaharrak (kasu batzuetan *kristautasun* aurreko kultura eta sinesmenak) mantendu ziren lekuetan, bere musikarekin parte hartzen zuen herriko bizitzan: *lan, festa, dantza, eztei, erromeri, alarde, prozesio* eta abarretan.

Horrez gainera, beste mila eginkizunetan hartzen zuen parte danbolinak. Esate bateko, kostaldeko herriean *baleak* agertzen zirenean, danbolinak abisatzen zien arrantzaileei. *Oiartzungo* herrian, 1749. urtean danbolinek jotzen zuten *pilotalekua* eraikitzentzako ziren langileak haien eginbeharrean animatzeko. *Lekeitio*, 1573. urtean bederatzi hilabeteko izurritea jasan zuten eta danbolina kontratatatu zuten bere musikarekin herritarren mina samurtzeko.

Danbolinaren musika belaunaldi askotako euskaldunek entzun dute. Baino dena ez da beti gozoa izan danbolinentzat. Gaur egun Eliza eta erakunde ofizialekin gehienetan harreman onak baditu ere, *historian zehar danbolinak marjinazio latzak jasan ditu*. Badakigu askotan, elizan aitorrta egin ondoren, txistua eta ttuntuna erre egin behar izan zituztela barkamena lortu ahal izateko edo *danbolina zenak edo izandakoak, ezin zuela kargu publikorik izan leku askotan*.

Gero argituko dizkizut hobeki Jose Inaziok azkenaldera iradoki dizkizun kontu beltz horiek, baina orain, esan: aurrena danbolin agrafoetatik txistulari eskolatuetara, eta gero txistua beste musika-tresnen mailara egokitzen eta modernizatzen lanik handiena egin duen familia aski ezagun bateko azken aditurik adituena dela *Jose Inazio Antsorena*, eta aitonak *Isidro, Joxe eta Hernaniko antsorenatar* zaharrak Goizuetan eta Arano aldean ere ailegatuak zirela behin baino gehiagotan danbolina jotzen. Horregatik moldatu dizut pasarte llabur hori honarako: arrunt aproposa eta hurbilekoa iruditu zaidalako.



1. irudia. Antsorenatarrok, Goizuetan eta Aranon ere joak ziren txistua frankotan.


Gaia girotzeko baizik moldatu ez dizudan sarrera motx hau alde batera utzi, eta has nadin gure danbolin xaharrei buruz Goizuetako Udal Artxiboan ageri diren datuak ikusten, urterik urte:

[1608, 19 or.] a Mariamiguel de Leyça administradora de la casa concegil doce ducados por la costa con el regimiento y juezes behedores de cuentas al tiempo que recevieron las cuentas conçegiles y con los dançantes y junteros del dia de Ntra. Sra. de la Asumption que es la abocacion de la dicha villa, y con los *musicos y juglares* que se traxeron de fuera.

[1609, 24 or.] quatro ducados que se hizo de gasto con los danzantes y regozijantes de la fiesta y *meçeta* [sic] de la villa que suele ser la festividad de la Asumpcion de la Virgen Ntra. Sra. de Agosto, y por el adreço y *musica* que se hizo traer de fuera.

Badirudi dantzariak herrian bertakoak zirela, baina danbolinak kanpotik ekarri zituztela urte batzuetan, herrian bertan taxuzko danbolinik ez zelakotz, edo, beharbada, festari gradu handixeago emanet herrikoei laguntzeko. Kontua da, beste dozenaren bat urtez (1610-1622) ez zela bertako danbolinen aipamenik egin herriko diru-kontuetan. Gero ikusiko dugu urte batzuetan Udalaren soldata jaso zuen Joanes de Leiça zelako danbolinaren kasua, hain zuzen ere, hor hasieran azaldu den Marimigel horren anaia baitzen, bere familiarekin Goizuetako Kontseju zaharrean bizi zena.

Baina, aurrera baino lehen, esan gerora ere maiz agertuko den *meçeta* edo *meçeta* hitzak «herriko festa handia» esan nahi zuela. Hara, bat behar eta, 1616ko Ama Birjina eguneko gastuen kontuan ageri zaizuna: «seys ducados por razon de los regocijos de la *meçeta* y fiestas de la patrona de la Villa que es de la Asumpcion de la Virgen Maria». Bi hitz horiei ongi erreparatuz gero, badirudi *meçeta* ez zela mezarekin edo elizarekin zerikusia zuen festa besterik. Kontua da orduko festa handi gehienetan, guzietan ez bada, presente izaten zela meza. Eta perukurrilo honen ondorioekin ez bazara fio, honatx 1628ko faksimile puska, Ama Birjina eguneko festa-egun handiari usadioz *meçeta* deitzen zitzaiola ederki erakusten dizuna:




Eta aspaldi handiko *meçeta* haietako aitzaki, segi dezagun kanpotik etorri ziren danbolinekin:

[1637, 33 or.] aber pagado 24 r. al *tamborín de Hernani* que vino a las fiestas de Ntra. Sra. de agosto.

[1645, 57 or., 6] a María de Orozco seys reales que ha pagado a la persona que fue por el *jular*, dos ducados quatro reales que dio al dicho *jular* y cincuenta reales que se dieron de costa a los dançantes y al dicho *jular* el dia del santissimo sacramento.

Corpus eguneko kontuak dituzu, eta hobeki goxatzeko, honatx faksimile puska ondoren:



[1647, 69 or., 25] gastado con los dançantes del Corpus, Santa Isabel, y Ntra. Sra. y la costa del *musico* de las dichas fiestas.

[1647, 70 or., 31] dos ducados al *musico* de las fiestas del *Corpus*, del dia de *San Juan*, *Santa Isabel*, y dia de *Ntra. Sra. de agosto*.

Horra hor, batez ere Trentoko kontzilioaz geroztik, goizuetarrek menderik mende ospatu dituzten festa-egunik handienak, San Pedroko ermitara eta Egazkiko Santiagora urtero egiten zituzten erromeriekin batera. Eta horietan guzietan, otordu ondoreko danbolin-soinua eta dantza inoiz ez ziren falta izaten. Baino gero ikusiko dituzu lasaiago egun seinalatu horiek, dantzak aztertzean.

[1648, 75 or., 38] ocho ducados al *jular* de las fiestas de *Corpus*, *San Juan*, y dia de *Santa Isabel*, y de Ntra Sra. de agosto.

Ohartu zara, lehen *musico* zena orain *jular* nola bihurtu den testubarren berberean? Horrexegatik nik ere lehen *musico* izenean agertu diren pasarteak *danbolintzat* hartu izana.

Honatx faksimile puska, oraindik hobeki ikusi nahi izatera:

*Han dan por descargo aburragado 8 ducados al jular
de las fiestas de corpus son 10 ducados sanusabel
2 ducados señora de agosto*

[1659, 48 or.] a los tambolines de Tolosa y Ezcurra por Corpus y Ntra. Sra. seis ducados.

[1659, 61 or.] ocho ducados al jular de Labayen.

Ikus ondoren faksimile paska, gutxitan bezain garbiro ageri denez, merezi baitu:

*Han dan por descargo 8 ducados ocho
ducados al jular de lauaren para las
fiestas del año que se celebra en la villa*

[1660, 41 or.] al tamborin traído a acer son en esta villa el año de 1660 en sus fiestas diez ducados.

[1661, 23 or., 9] catorze duc a los julares que esta villa traxo de fuera para sus fiestas de entre año.

[1662, 33 or., 37] al tanbolin ocho ducados por las fiestas del año.

*Han dan por descargo han pagado al tan
bolin ocho ducados por las fiestas del año*

Badirudi goian aipatzen dena herriko danbolina dela, eta herriak pagatu dizkiola zortzi dukat urtean zehar egindako lanagatik, baina, izenik ematen ez duenez, beste

deus ezin argitu nik. Bakar bakarrik esan, inor izatekotan, gero azalduko den Martin de Maistruarena izan litekeela.

[1663, 37. or., 19] a los *tanbolines* de Urnieta y Hernani tres ducados y siete reales.

[1664, 54. or., 77] aber pagado al *jular* nuebe ducados por el son de las *fiestas* de la villa.


[1665, 65. or., 61] A Domingo de Arizcun *jular* y Domingo de Oiz cerrajero once ducados.

[1666,73. or., 43] un ducado y cinco reales a un *tambor* por tocar por las fiestas de Ntra. Sra.

Aurreko *tambor* hori ikusi eta, kontuotan ohitua ez bazara, baliteke pentsatzea zer zen *danbolina* eta zer *atabala*, nahasi eginen zituztela askotan. Ez bada. Gaur egunetik begiraturik gezurra badirudi ere, *danbolina* beti *txistularia* zen, eta *tambor*, *atambor*, *tabal*, *atabal*, *caxa* edo *redoblante* delakoa, beti *atabaleroa* edo *danbor jotzailea*, gero maiz ikusiko duzun bezala.

[1666, 73. or., 53] quinze ducados y cinco reales a *Francisco de Larregui tamborin* por hazer son en sus fiestas incluyéndose en ellos diez y seys reales dados al *tamborin de Oyarzun* que estubo en esta villa a las fiesta de Ntra. Sra. de agosto.

Ikus ondoko faksimile puskan bien aipuak:



[1666, 73. or., 63] al atabalero cinco ducados y tres reales por hazer son y *tocar el atabal* en las fiestas desta villa.

Badirudi lehen aipatu *tambor* hura Oiartzungo danbolinarekin etorria zela Goizuetara Ama Birjinak alaitzera, eta horko *atabalero* hori, berriz, herrian bertakoa zela, urtean zeharreko ospakizun guzietan jotzen zuena. Kobratu zuen dirualdiak halako zerbaitek erakusten du; esan ere, ez dakit esan dizudan, baina, lehengo usadio zaharrean,

atabalariak danbolinaren erdia kobratzen zuen beti. Gure garaian, ordea, normalean berdin kobratzen dute txistulariak eta atabalariak.

[1667, 39 or.] un ducado y un real por ir a *Urnieta* y *Usurbil* en busca de *tamborín* para las fiestas.

[1667, 83 or.] a *Miguel de Maistruarena tamborín* catorze ducados, los doce de ellos por hacer son en las fiestas de entre año de esta villa y los otros dos por *costiero* de las heredades de ella.

[1667, 84 or.] a *Joan de Zubiri* quatro ducados y ocho reales por cinco días de ocupación incluyéndose en ellos el gasto que hizo con los *tamborines de Arizcun* desta villa.

Lau gauza nabarmentzeko azkeneko pasarte horretan. Bat: nahiz herrian bertako danbolina bazela iduri, kanpotik ekartzen segitzen zutela Ama Birjina egunerako. Bi: nahiz diru-kontuetan bere izenez gehiago ez azaldu, *Miguel de Maistruarena* hori izanen zela herriko danbolin nagusi Goizuetan ere, seguru aski, laster ikusiko duzun *Joanes de Leyça* hark utzi zuenetik *Martin de Legarreta* hasi zen arte. Gerta ere, gerta bailiteke haren soldatua dantzarien gastuen zakuan sartua izatea, eta horregatik gero bereiz inon ez aipatzea.


Hiru: danbolin izateaz gainera, *costiero* ofizioa ere bazuen Maistruarenak. Gauza jakina den bezala, danbolinak bizi bide murritza izan ohi zuen, eta herriko jai handietan soinua jotzen bazuen ere, gainerakoan neke handirik gabeko beste ofizioren bat izan ohi zuen osagarri, betiere Udalaren babesean bereganatua: herriko *berri-eramaile*, herri batera eta bestera; edo, maizenik, herriko *errortzain*, *larrezain*, *aberezain*, *ahuntzai*, *basozain*, *alortzain*, *sagastizain* eta abar. Halako zerbaite esan nahi dizu erdarazko *costiero* hitz zaharrak ere: *mugazain*, zehatzago esateko; baina, *costiero* zelakoak, batez ere herriko alorrak eta sagastiak zaintzen zituen. Zenbat aldiz leitua ote nago Iruñeko Artxibo Handian edo Goizuetako Udal Artxiboa bertako paper zaharretan: «costerage del costiero de manzanales y panificados de la Villa» edo gisako esaldiak. Zenbat aldiz, bai!...

Eta azkenekoz, esan: goian azaldu den «tamborines de Arizcun *desta villa*» horrek, deus bada eta, legarretatarak goizuetartu zireneko garaitsua erakusten dizula. Baina hori dena *Martin Legarreta* danbolinaren atalean ikusiko duzu gero argiago.

1. JOANES DE LEYÇA DANBOLINA (1623-1643)

Barkatuko ahal didate goizuetarrek atal hau leitzar batekin hasi beharra, baina ez daukat beste erremediorik. Aurrenoko atalean, batez ere kanpotik etorritako *danbolinak* aipatu ditut, eta tarteka agertu diren herritar bakan batzuk ere bai, baina Goizuetan bakarka bere izenez kontuan hartzeko lehen danbolina *Joanes de Leyça* horixe dela iruditu zait. Hara nola ageri den Udaleko diru-kontuetan, urterik urte:

[1623, 42 or.] a *Joanes de Leyça* por su pensión de serbir de *jublar* [sic] a la villa en las colaciones de sus fiestas acostumbradas del año dos ducados.




Badirudi urteko festa-egun nagusietan danbolina jotzeagatik pagatu ziotela bi dukateko soldata, eta lehendik egina zuela Udalarekin kontratua, bestela ez baitzuen *pensión* hitza paratuko. Hala ere, bere ofiziorik behinena *basozaina* zuen aspalditik gure Joanes leitzarrak, eta herriko danbolin urte batzuk egin ondorekoa ere bai, gero ikusiko duzun bezala. Eta badirudi bere *danbolin* lana aldizkako samarra izan zela, beste bost urtez ez baita egiten danbolin honen aipamenik. Bai ordea beste batena, iraizean bezala azaldu zaidana:

[1628, 51 or.] tres ducados porque el mismo bolsero tubo quexa no habersele acudido con su salario de haber echo musica en algunos años pasados por las fiestas mayores de entre año.

Herriko *bolsero* edo diruzain horren izena *Beltran de Huyci* ageri da urte bereko kontuetan, eta, itxura denez, aurreko urte batzuetan danbolina jo eta Udalak soldatarik ez pagatu izanagatik bereganatu zituen hiru dukat atzeratu horiek. Eta urte horietan guzietan, ematen du Joanes Leitzakoak ez zuela danbolinik jo. Hurrengo urtean bai ordea:

[1629, 53 or.] a Joanes de Leyça juglar siete ducados y nueve reales, por su asistencia por el dicho año en las procesiones y días festivos por no haberse recogido ni echo demanda del plazo por casas en la forma acostumbrada por la esterilidad del tiempo.


[1631, 24 or.] al jublar de Rena. quattro ducados y un real.



Gero, 1635. urtean ere ageri da berriz *jublar* hori, hemengo laburdura berberarekin adierazia:

[1635, 19 or.] item al atanbor boton y al jublar de Rena quattro ducados.


Horra hor, berriz ere, aurreko *Rena* laburdura berbera, aurrekoan bezalaxe *jublar* misteriotsu hori aurretik duela, beste guzietan ez bezala. Eta honatx faksimilean, berriz ere:



Nik esan behar banu, kasik segurantzia osoz *de Rena*, laburdura madarikatu horrek ez duela Erreenteria (*Renteria*) baino esan nahi. Lehen ikusi bezala, ohitura handia baitzen, gaur oraindik hala den bezalatsu, herrikoen arrimura kanpotik danbolin hobeak ekartzeko, festa handietarako. Eta Goizuetak eta Erreenteriak aspaldiko harreman handia izan dute horretan. Baina, orain, segi dezadan herrian bertako Joanes danbolinarekin:

[1632, 45 or.] a Joanes de Leyça *juglar* por su salario cinco ducados.

[1633, 43 or.] a Joanes de Leyça *juglar* cinco ducados y siete reales.




[1634, 24 or.] a Joanes de Leyza seis ducados.

Hortik aurrera, ez zait inon gehiago azaldu Joanes de Leyça danbolinik. Nik uste danbolin lana utzi eta *basozain* lanari ekin ziola erabat. Lehendik ere, urterik urte, herriko *basozain* ageri baitzen, herriko danbolin izateaz gainera, eta badirudi atzenerako danbolin lana utzi eta erabateko *basozain* lana hartu zuela. Hona, urtez urteko beste askoren lekuko, 1643ko aipamena:

[1643, 42. or., 17] a Joanes de Leyça *guardamonte* 7 ducados por su salario.

Eta sinetsi ezinik gelditu bazara, honatx faksimile puskarik garbientxoena:



Eta badirudi ofizio hori bera izan zuela beste urte sail batean gure Joanes de Leyça danbolin izanduak. Familiako datu batzuk ematearren, badakit aita, Martin de Leyça Onssalo, eskribaua zuela, familia guzia bezalaxe Goizuetako Kontsejuan bertan bizi zena, Azokan. Hara zenbat pagatu zuen urteko errenta 1602an, familiako buruak berak: «mas dos ducados y medio por la renta de la casa del concejo que la tiene *Martin de Leyça esno*». Leitzako seme eskribau horixe izandu zen 1593. urtean –ordurako Azokan bizi baitzen– Katalin Marrokin goizuetarrari «petxero» eta «mixerable» deitu ziona, Donostiara oinutsik zihola ikusi zuen batean. Esan bazion esan zion, a zer nolako sua piztu zuena! Ez duzu, beraz, atzo goizeko ihintza, goizuetarren eta leitzarren arteko espaa (ikus laburturek *Trapuan pupua* liburuko 44-45. orriean). Eskribau leitzar horren seme Martin ere, gero anaia gazte Joanes danbolina bezalaxe, Goizuetako basozain izandua zen urte haietan (GUA, 1602, 33 or.): «a *Martin de Leyça* un doblon de veinte y tres reales y medio por su salario ordinario de guardamonte». Eta Joanes de Leyça danbolinaren arreba Mari Migel, berriz, lehen ikusi bezala, Herriko Etxeko ostalari izana urte sailean (GUA, 1604, 23 or.): «a *Maria Miguel de Leyza* dos ducados por lo que ella suplio y hizo de costa a los mancebos que traxeron los toros que se corrieron por las fiestas de Ntra Sra de agosto y a los que hicieron las barreras». Handik hamar urtera, berriz, 1615ean, Mari Migelen anaia Joanes danbolinaren kargu ageri da Azokako errenta: «çinquenta y cinco reales la renta de la casa concegil a cargo de Joanes de Leyça y Pedro de Echeverria». Girotsu horretan bizi izana zen, beraz, gure Joanes de Leyça, gero danbolin eta basozain izan ondoren, 1661eko abenduaren 13an Goizuetan bertan hil zen arte.

2. PELEGRIN ATABALARIA (1626-1635)

Badirudi Joanes de Leyça danbolinari lagundu zion atabalaria *Pelegrin* deitzen zioten xelebrea izan zela. Gauza jakina da jende alderrai samarrak zirela normalean garai hartako herri-musikariak: leku batetik bestera aisa ibiltzen zirenak, ijito edo agot kastakoak gehienak, eta hona hemen Pelegrin atabalaria, berriz ere, topiko hori indartzera non azaldu zaizun. Zergatik deitzen ote zioten Pelegrin? Egunen batean *Malenera pelegrin etorri* eta aldiren baterako bertan laketu zelakotz? Eta herrian eske apurren bat eginez bizi zelakotz? Baliteke halako zerbait izatea. Edo ez. Kontua da *atabalari* ageri dela Udal Artxiboko diru-kontuetan, gutxienez 1626tik 1635era bitarteko urteotan. Begira nola:

[1626, 66 or.] doze reales a *pelegrin* de [...], por tocar el *atabal* por las fiestas de Pasqua y San Pedro.


[1627, 53 or.] a *pelegrin Boton* diez y ocho reales por tocar el *atabal* por San Pedro, y meceta de la villa.

[1628, 49 or.] a *Remon Boton* doze reales por tocar la *caxa del atabal de la villa* las fiestas mayores.

Ikusten?... Hasieran ez deitura eta ez izen, *pelegrin* hutsa zen etorkin hark atzenerako nolako graduak hartu zituen? Aurrena *Boton* deitura, eta gero *Remon* izena. Imajinatzen ditut goizuetar guziak *Botones* xelebreari nongoa zen galdezka, adarra jotzen, baina

ez nuke haren arbola genealogikoa egiten hasi nahiko *Remon Boton* hori oinarritzat hartuz.

Beste daturik ere ageri da hor ordea: Pelegrin xelebreak jo zuen atabala *de la Villa* zela, herriarena izan ohi zela atabala, alegia, danbolina bezalaxe, eta herriko jai handietan hura jotzen zuenari pagatzen zitzaiola soldata. Ikus ondoko faksimilean, «la caxa del atabal *de la Villa*»:




Hor ere garbi esaten da azkenean: «*las fiestas mayores* dentre año». Horrek esan nahi du, lehen Joanes de Leyça danbolinak bezalaxe, Remon Boton atabalariak ere ez zuela jaiero jotzen, baizik eta herriko festa handietan bakarrik: San Pedro eta Santiago Egazkiarako erromerietan, Corpus, San Joan, Santa Isabel eta abuztuko Ama Birjina egunean, batik bat. Eta ni oso oker ez banago, horrek adierazten du orduan oraindik ez zela jaiero plazan danbolina jotszeko ohiturarik. Ez behintzat Udalaren kontura. Baliteke, ordea, herri askotan ohitura zen bezala, gazte-taldea bildu eta bakoitzak hainbesteko bat pagatuz danbolinari jai-arratsaldetan plazan joaraztea.

[1629, 45 or.] a Remon Boton por batir la caxa o tocar el atanbor doze reales.

[1631, 44 or.] yten aver pagado a *Martin Ramus de Luxanbio* por echar dos *pellejos de becerro* a un *atanbor* de la villa dos ducados.


Eta nik transkribatutakoarekin ez bazara fio, honatx faksimilea zure lasaitasunerako:



Horra hor zerenak izaten ziren *atabal larruak*: *aratxe gaztearenak*, itxura denez. Eta hor ageri den luxanbiotar Erramux hori, seguru Maioko Joxe Joanen edo haren senideen zaizkikoa izanen zela, argitik argira larruarekin burrukan ezagutu baikuenen guk mutikotan, danborrak, zahagiak, zahatoak, zatak, botak, zapatak,

aztal uhalak, petralak, pilotak eta inon ziren larruzko zera guziak konpontzen. Zena zela, Luxanbiok berritu zuen atabala herriarena zela esaten da hor, berriz ere: «un atanbor de la Villa». Izan ere, eta batik bat armen alardea egitekoan, berebiziko garrantzia baitzuen danborrak, pausoak markatzeko, eta armekin batera gordetzen zen Herriko Etxean. Hantxetik hartuta joko zuen beste urte batzuetan gure Pelegrin Botonesek:

[1635, 6. or., 19] item al atanbor boton y al jublar de Rena. quatro ducados.



Beste aipamenik ez dut aurkitu Udal Artxiboa, gure atabalari *Botones* xalo harenik, eta baliteke, Goizuetan aspertuxe zenean, bere pelegrin-bideari jarraitu izana. Ez baita ageri bertan hil zeneko aztarrenik ere elizako heriotza-agirietan.

3. MARTIN LEGARRETA DANBOLINA (1670-1729)

Goizuetako Udal Artxiboko datuetan ageri zaigun lehen danbolina, bere izen-deituraz eta bizimoduz ongi ezagutzen duguna, *Martin Legarreta* arizkundarra dugu. Batzuetan deitura horrekin azaltzen da, eta beste batzuetan *Legarrea* deituraz, baina badakigu bietan gizon bera dela. Danbolin honek gutxienez 1670erako egina zuen udal-kontratua, urteko festa-egun handietan danbolina jotzeko. Hara nola ageri den aurreneko urteetan:

[1670, 109. or., 71] a *Martin de Legarreta tamborín* trece ducados por el salario de un año que la villa le da por hacer son en las fiestas que celebra entre año esta Villa.


[1671, 113. or., 28] un ducado y cinco reales al *tamborín y tambor de Hernani* por Ntra Sra. de Agosto por hacer son.

[1671, 113. or., 62] a *Martin de Legarreta tamborín* residente en esta villa catorce ducados por hacer son en las fiestas que acostumbra y celebra entre año esta Villa:

[1672, 143. or., 46] a *Martin de Legarreta tamborín* quince ducados por hacer son en las fiestas que se ofrecen durante el año en esta Villa.

[1673, 153v, 43] a *Martin de Legarreta tamborín* quince ducados por tantos le da la Villa por acer son en las fiestas que se ofrecen durante año...

Ikus ondoren azkeneko pasarte honen faksimile puska, nahiko garbi:



[1674, 163. or., 59] a *Martin de Legarreta tamborin* quince ducados por hacer son durante el año en las fiestas que se celebran.

Bistan da goiko aipamen horietan guzietan ageri den «por hacer son en las fiestas que celebra entre año esta Villa» horretan oraindik ez zela jaiero plazan danbolina jotzeko ohiturarik sartzen, ez benpe Udalaren kontura. Baliteke, halere, herriko gazte-taldea bildu eta bakoitzak sos bana pagatuz danbolinari joaraztea jai-arratsaldero, herri askotan ohitura zen bezala. Udalak, ordea, festa-egun handietan bakar-bakarrik pagatzen zion danbolinari, orduan oraindik: Corpus, San Juan eta Santa Isabel egunean, abuztuko Ama Birjina egunean, San Pedro eta Santiago erromerietan, armak erakusteko alarde-egunean... Begira, bestela, hurrengo pasarte honetan esaten denari:

[1675, 82 or.] a *Martin de Legarreta tamborin* residente en esta villa diez y siete ducados y dos reales, los quince por lo que la villa le da por hacer son en las fiestas que entre año tiene señalados, y otros dos y dos reales por el trabajo que tubo en tocar el *pifano* el dia del alarde.

Horrek erakusten du Martin Legarretak, *danbolina* ez ezik, *pifanoa* jotzen ere bazekiela. Gero ikusiko duzu usadioz armen alardeko egunean jotzen zen musika-tresna hori nolatsukoa zen. Baino alarde-eguneko bezperan ere jotzen zen, batez ere herriko jendeari hurrengo egunean alardea zela adierazteko. Orduko ohitura hala baitzen: herritarrei jaiegun handien etorrera adierazteko, bezperatik danbolina jotzekoa; baita ezkilak bezperatik jotzekoa ere. Hain zuzen, gure herrietako festa handietan gaur egun arte gorde den ohitura. Begira, diru-kontuotan ageri diren datuei:

[1675, 172. or., 24] tres duc y siete reales al *tambor de la villa de Ermanni* por la ocupación que tubo el dia del alarde y muestra que esta villa hizo y su vispera en tocar la caja.

[1676, 191. or., 7] al *tambor de Ermanni* por las ocupaciones que tubo en el alarde cuatro ducados.

[1676, 192. or., 18] a *Martin de Legarreta tamborin* diez y siete ducados y dos reales, los quince ducados por hacer son en las fiestas que celebra entre año esta Villa, y lo restante por tocar el *pifano* en el alarde.

[1677, 220. or., 23] cuatro ducados cuatro reales al *tambor de Hernani* por tocar la caja el dia del alarde de armas y su bispera.

[1678, 46. or.] dos ducados diez reales a *Joanes de Yrigoi en tambor* por la ocupación que ha tenido en *tañer el tambor el dia del alarde* que esta villa acostumbra.

[1678, 70 or.] diez y siete ducados y dos reales a *Martin de Legarreta tamborin* por tantos por hacer son en las *fiestas y danzas* que esta villa celebra y los tres pesos restantes por tocar el *pifano* el dia del *alarde* y su vispera.


Lehen ere azaldu da 1671ko Ama Birjina egunean Hernanitik etorritako danbor-jotzailea, eta pentsa liteke alarde-egun horietako berbera izanen zela, eta, izen-deituraz, baliteke gero azalduko den *Felipe Erasun* bera izatea ere. Baino badirudi 1678ko alardean atabala jo zuen *Joanes Irigoien* hura goizuetarra zela. Ondoreko urte batzueta, ordea, ez dirudi alarde-eguneko pifanoa Martin Legarretak jo zuenik, ez baita haren soldatan horren aztarrenik ageri. Edo litekeena da, baita ere, alarde-eguneko gastuen zakuan sartu izana pifanoaren gastua, eta horregatik gero bereiz ez aipatzea:

[1679, 250. or., 11] a *Martin de Legarreta tamborin* quince ducados por hacer son en las festividades que acostumbra entre año esta Villa.

[1680, 266. or., 43] a *Martin de Legarreta tamborin* quince ducados por hacer son durante el año.

[1681, 288. or., 44] a *Martin de Legarreta tamborin* residente en esta Villa quince ducados.

Ikus ondoko faksimile puskan testua oso-osorik, xehero bezain garbi:



[1687, 17 or.] a *Martin de Legarreta jular* quince ducados como la villa tiene concertado por hacer son en las fiestas que ella celebra.

[1689, 53 or.] quince ducados a *Martin de Legarreta tamborin* como estaba concertado este año.

[1690, 19 or.] a *Martin de Legarreta tambolin* residente en ella quinze ducados por hacer son en las fiestas en el discurso del año.

[1691, 29 or.] 15 duc. a *Martin de Legarreta jular* por tocar el son en las fiestas de entre año.

Lehen ahaztu egin zait esatea, baina egun oraindik Irunen edo Hondarribian nabari den bezalaxe, orduan ere ohitura bazela dirudi armen alardeetan berez zitzua baino soinu meheagoa zuen txirula jotzekoa. Hemen ageri den *pifanoa*, alegia. Begira, berriz ere, aurreko urte berberetako diru-kontuetan alardeari bereiz eskainiak ageri diren ondoko bi pasarteok diotenari:

[1690, 22. or., 31] Phelipe de Erasun *tambor vezino de Ernani* quarenta reales por la caxa de *tambor* el dia del *alarde* su bispera y dia siguiente.

[1690, 22. or., 32] a *Martin de Legarreta tambolin* veinte y quatro reales por tocar el *pifano* en el *alarde* antecedente.

[1690, 22. or., 33] 18 reales de polbora.

[1690, 22. or., 34] a Joanes de Urtea zerraxero tres ducados y tres reales por *limpiar las armas* propias desta villa para el efecto del dicho *alarde*.

[1691, 34. or., 58] quattro ducados por un *pellejo de vino* que se gasto con la junta del *alarde*


[1691, 34. or., 59] un ducado syete reales en *polbora* y cuerda con los mozos solteros que salieron al dicho *alarde*

[1691, 34. or., 60] quattro ducados y quattro reales a *Phelipe de Erasun tambor*.

[1691, 34. or., 61] a Juanes de Urtea zerrajero tres ducados y tres reales por *limpiar las armas* de la Villa.

[1691, 34. or., 62] dos ducados y dos reales a *Martin de Legarreta* por tocar el *pifano* en el *alarde*.

Honatx faksimile puxka, zorioneko pifanoaren azken aipamena ageri zaizunekoa:



Alardeetan pifanoa jotzeko ohitura oso aspaldikoa zen, beraz. Eta zorioneko pifanoa nolatsukoa izaten zen jakiteko, hona internetik atera dizudan alea:



Baina alardeak nolako afanez egiten ziren ikusteko, aski da ongi erreparatzea orduko diru-kontuetan nola aipatuak ageri diren. Aurreko bi aipamenetan ez ezik, ondokoetan ere hor ageri baitzaigu, pifano-jotzaileaz gainera, *Hernanitik* apropos etortzen zen *Felipe Erasun atabalaria*: «por la asistencia de *componer en esquadron el alarde* desta villa y sonar el *tambor*». Ez dakigu nongoa zen, berriz, 1694an Martin Legarretaren ordez danbolina jo zuen *Martin Apeztegia* hura.

[1692, 60. or., 22] *Martin de Legarreta tamboril* 15 duc. por tocar el son en la festividades del año.

[1692, 60. or., 28] tres ducados siete reales a *Phelipe de Herasun tambor vecino de Hernani* por venir al alarde y muestra de armas que haze sonar el tambor.

[1694, 83. or., 13] quiçe ducados que en nombre de *Martin de Legarreta* a cobrado *Martin de Apezteguia* que la villa paga por sonar en su oficio de jular.


[1694, 83. or., 17] siete ducados siete reales a *Phelipe de Erasun y Phelipe de Errecarte* por la asistencia de *componer en esquadron el alarde* desta villa y sonar el *tambor*.

[1696, 97. or., 8] quarenta reales a *Phelipe de Erasun* por tocar el *tambor* el dia del alarde.

[1696, 97. or., 22] quinçe ducados a *Martin de Legarreta tamboril*.

Ondore hartan, bigarren laguntzailea etorri zitzaison ondora gure Martin Legarretari, baina ez dirudi oso ongi hartuko zuenik, soldataren erdiarekin gelditu behar izan baitzuen:

[1710-5-23, 97. or.] en dicha junta pidio *Ignacio de Huici jular* se le admita por *jular* de esta villa en consorcio de *Martin de Legarreta* y se resolvio sirvan ambos el presente año llevando a medias el salario de los quince ducados que la villa paga.



Gero, han nonbait, 1711tik 1720ra bitartean ez da egiten Martin Legarretaren aipamenik, eta badirudi Inazio Uitzi horrek berak eta besteren batek jo zutela danbolina, Oiarztungo *Martin Lopez Etxeberria* atabalariarekin batera:

[1713, 197. or., 22] 24 r. pagados a *Juan Lopez de Echeberria tambor de Oyarzun* por haver llegado a la meceta de Nra. Sra. a tocar el tambor...

[1716, 202. or., 14] dos ducados a *Juan Lopez de Echeberria tambor de Oiarzun* que hizo son por la fiesta titular de Ntra. Sra.

[1717, 208. or., 30] a *Martin Lopez tambor* incluso el gasto de sus comidas 2 duc y 9 tarjas.

[1718, 214. or., 9] 6 duc. por el tablado y atabalero de Oiarzun, el primero 4 y el segundo dos.


Urte horietan guzietan Martin Legarretak beste norabait alde egin zuela dirudi, Inazio Uitzik soldata erdia kendu zionean. Ez ote zen Leitzara joana izanen soldata hobearen bila? Begira 1720ko diru-kontuetan ageri den pasarte honi:

[1720, 229. or., 25] doze reales a una parte pagados a *Martin de Legarrea jular de Leiza* por haver asistido a la fiesta de Nra. Sra.

Ez ote zen Martin Legarrea hori izanen, lehen Goizuetako danbolin izandako Martin Legarreta berbera, urte batzuetarako Leitzako Udalarekin kontratua egina zeukana? Larri ibili. Pontxito Irurtia hala baitio «XVIII. mendeko txistulari leitzarrak» izeneko pasartean¹: «Leitzako artxiboa ez dugu Joseph Legarrearik aurkitu. Bai ordea Martin Joseph Lagarreta Chuvia izenekoa, 1685. urtean jaioa, eta errotari batzuen semea». Hor badirudi nahasteren bat gertatu zela deitura bereko danbolinen artean.

Kontua da, berriz ere, 1728. urtean Goizuetako danbolin ageri dela gure Martin Legarrea. Ez ote zen, Leitzako Plaza Zaharrean urte batzuetan jaiero danbolina jotzen aritu ondoren, berriz Goizuetako plazara itzulia izanen aurreko Martin Legarreta huraxe berbera, lehengo soldata berbera berreskuratz?... Berriro diotsut: larri ibili! Eta begira:

[1728, 296. or., 45] quince ducados pagados a Martin de Legarrea por su salario de jular o tamboril.



Horra *jular* eta *danbolin* gauza berbera zirela erakusten duen faksimilea, inondik ere sinetsi nahi ez didan kaskagor horrentzat. Hala ere, gure testuinguru jakin honetatik kanko, eroak ere badaki hedadura semantiko zabalagoa izan zuela hitzak sorreran. Honatx Eresbil preziatutik atera dizudan pasarte llaburra: «se aplicó el nombre de juglar a los intérpretes de cualquier instrumento, artistas de danza, recitadores de romances, chistes, etc. La palabra “juglar” tiene su origen en el siglo x, partiendo de la latina “jocular” (Jocus = chanza, broma, chiste...), que experimentó en los idiomas europeos su acomodación propia. En el castellano más antiguo “joglar” y luego “juglar”».

1 Txistulari aldizkaria, 153. zkia., 5. or.

Bukatzeko, esan handik urtebetera hil zela gure danbolin sonatua, 1729ko abenduaren 9an. Dena dela, hurrengo gizaldian, ez dirudi inork aitaren ofiziorik izan zuenik, ez baita beste danbolin legarretatarrik ageri garai hartako paper zaharretan Goizuetan, bai ordea inguruko herriean: Leitzan, Tolosan, Areson, Aranon... Hara Marigartzineko aitona xalo Joxemari Legarreta hiztun bikainak behiala esandakoak²:

Bein konbertsazioan jarrita, Don Estebanei esan niyon, ta arrek karri zian sekulako zerrenda. Gure attan aitona *txistujotzallia* emen zan, Arizkundik torria. Gero arrek izandu zittun semiak Ameriketa juanak e badia, biño gure attata, aren illobak, emen geldittuk. Oik gero re bazuen *musikako berezko zea*. Gure atta zenak etzun izandu, baño *Sagargaztekua re txistujotzallia zan*, anaya: Isidro; ta gero Proentxio esate ziyoena emen bestia, *musika asko zekina*. Maertzenen bizitu zen hura.

Proentxio arrek *mezakantatzen* da, *txistu jotzen* da, *bazun musika franko*. Nere anaya *Joxe Martiñ Xauxarkua*, mutikozkorratan *solfá erakutsi* biar ziola ta, *boza polita* zula ta, *kantatzen erakutsi* biar ziola ta, erabilli zun, biño ez joan nai orrek, ta artan geldittu zen.

Baina, kantuan ezezik, beste gauza frankotan ere bazuen grazia Joxe Martin Xauxarkoak musika-kontuan: *dantzan*, *krisketinak jotzen* eta baita *atabala jotzen* ere. Hona non ageri den, seme Manolok utzitako argazki dotorean, herriko txistulari gazteen gidari:



2. irudia. Aranoko txistulariak 1938-1940 aldean. Eskuinetik ezkerrera: Olasoko Manolo Egurretxea, Jesus Leonet Gorozkenekoa, Felix Uitzi Gaztarozko bordakoa, Bittor Eskudero Mailekoa, eta atabalero, Joxe Martin Legarreta Xauxarkoa.

2 J. J. Zubiri Lujambio; P. Perurena Loiarte, *Goizueta eta Arano herrietako bizkeren ezaugarri orokorrak*, Iruñea, Euskara Kudeatzeko Nafarroako Iparraldeko Mankomunitatea, 1998, 254. or.

Horra Legarreta danbolinaren egundainoko lokarria, gizaldiz gizaldi, herri-musikarako grinari bizi-bizirik eutsi diona. Eta honatx berriro Joxe Martin horren seme Manolo Legarretaren azalpenak, argazkia atera zeneko garai hartako musika-giroaz:

Olasoko Manolo *Egurretxea* horren beste anai ordekoa *Bengoetxea* yun, remonten da aittua. Bittor Eskudero Mailekuk, berriz, gero *elizan organilloa* jotze zin. Oiri denari *Don Pedro* [Diaz de Ulzurrun] apezak erakutsi zioteken solfeoa.

Gure atta Joxe Martin, oik baño askoze zarragua yun. *Joxe Martin Legorreta ttunttuna, gaztetan Aranoko dantzarik obenetakoia izandua, krisketiñak joaz ta.* Bertso librúa re izaten zin, ta buruz bertso asko zekina yun. Ua berez *Mairtzeneko semia* yun, ezkontzaz Xauxarre torria. Ortik pasatzen lanera, ta atta eldu zeneako, ama beti uran billa iturrira. Ordun yornala zuna, ez baitzen nornai izaten, ta amak bai emen tzin poz erra, ezkondu zianin.

Amazapi urtekin elektrikan lanin sartua, ta gerra denbon arretagoardia ittea Loiolara joana. Espostuk zianak arretagoardia, ta solteruk «al frente». Gau batzuk Loiolan pasa, ta batzutan ixilka itxera torriz ta, Zentraleko lana etzin beiñe utzi, arretagoardikon e or seittu zin, gero *jubilatu* zen arte, *Arranbideko zentraletik*, iruroin bat urtekin.

Xauxarren bizi zien orin atta re beko zentralin aitzen emen yun, baño *loteri pizarran bat tokatu* izan biar tzin Aranon, ta Xauxarko orrei re bai, ta ya aberastu zela ta zentraleko lana utzi in emen tzin. Ta or nonbatte Itsasondo aldin, Mertzeria patu re bai arreba bateri... Neskarazza yun ura. Gero izeba Itsasondokoa ikarri aberatsa izaten ginin, baño aren erentzin billa joanda: erloju zar bat eta gutxio geio alletu yun gure etxera. Gero loteriko diruk gastatu ta, ordun komerik...

Amona yun berriz, Surotik joana Xauxarre [«*Suroko señorita* esaten emen ziten», gehitu dio emazteak bazterretik]. Orik ittu *Antsosukok, Sarobe apellidua*. Gaxua, karraxi batin an eotte yun, kantzerra baitzun estemagun, ta nik amaika amabi urte nittula il yun.

Ama ta iru ahizpa ittu: Florentina, gure ama; Felixa, soltera il zena; ta bestia, oaindik Hernanin bizi dena, 99 urtekin, Maria *Escudero*. Xauxarko *apellidua* ala baitzen. Attuna berriz, nik bost urte nittula illa: Manuel Eskudero, beste anai bat Francisco Eskudero, zurgiña yun. Errota ark iña izan bear zian, tallatuta jarria «*Fco. Escudero*» izaten baitzun.. An beste zentral ttiki bate izaten yun, gure osabak lan itten zuna, ta Hernaniko kurtido fabrikara izaten yun andik linea txar bat».

Barrenetxeko sukaldetan hizketan gaudela, 2015eko Pilarika bezpera arratsean hain xuxen, emazte Mila Narbarteak kendu dio hitza Manolori, berriz ere aitona Joxe Martin Legarretaren musikarako grina nabarmendu nahian:

Iande arrasaldetan izaten emen zuten ordun e dantza, ta gure amak ala esaten zun: neska koadrillak eta, mutillanak eta, izaten emen zittuztela dantzan ibiltzeko, ta *bat bakarra* izaten emen zela *Aranotikan tortzen zena: attona Joxe Martin*, gure gizonan atta. Arren esperon eotten emen zian, ta kusten zuten denbon Zubianditikan onontz eldu zela, «*Ara! Mairtxene emen diu, Mairtxene. Gaur badiu juerga!*» Denak arrotuk ora kusiz kero. Ikaragarri dantzari ona men tzen, ta krisketiñak patrikeran zittula tortzen beti! *Plazan atere krisketiñak, eta antxe, aballa dantzan!*

Goizuetatik Aranora, Aranotik Goizuetara, baduzu hor non zertan saiatua, behialako danbolin xahar harenganainoko lokarriak ongi lotu nahi izatera. Haren ondorekoak baitituzu, besteak beste, *Xabier Legarreta* bertsolari onxkoa Aranon, edo *Imanol Legarreta* Barrenetxekoa, Goizuetan bertako alkate (2003-2007) izandua. Honatx beste datu batzuk, laguntze aldera.

3.1. Danbolin borda, Martin Legarretak egina (1690)

Esan dizut Martin danbolina 1729an hil zela. Ez zuen ordea inolako testamenturik egin. Hari zor diogu, hala ere, oraindik *Danbolin borda* izeneko baserria Goizuetan. Zer testamentu ederragorik...?

Goizuetako Udal Artxiboan, batzar-erabakien sailean, hara zer dioen 1690eko urriaren 15eko pasarte batek: «Martin de Legarreta *jular* intenta *fabricar una caseria* en los terminos desta villa y necesita para su fabrica algunos robles». Behar zuen zurajea eman zion Udalak, eta baita markazioa egin ere, «mas arriba de *Sansola*, junto a la regata de *Acorrola*». Huraxe izanen zen borda egiteko aurreneko apunte ofiziala. Eta borda egiteaz gain, gero gure *Martin Legarreta danbolina* bertan bizi izatean, herriak berak bataiatuko zuen *Danbolin borda*, egilearen ofizio xaloari esker, eta gainera, gizaldiz gizaldi, eta ahoz belarri, herriak berak eutsi bizirik, galdu gabe, egundaino.



3. irudia. Danbolin borda, Martin Legarreta danbolinak 1690ean egina (P. Peru, 2003).

Oi, zeinen ederrak, herri xeheak oharkabean bezala sortu eta erabiliaren erabiliz betikotutako etxe-izenak! Zeinen izen ederrak bai, gaur egileak berak handiro bataiatu arren, herriak mutu uzten dituen izen burges antzu arimagabeon aldean!...

Ondoko urteko apeoetan edo erroldetan ere hantxe ageri zaigu gure danbolin sonatua berak egindako etxean. Hara, esate bateko, 1726ko etxe-zerrendan nola ageri den, auzokoen artean:

23. Franco. de Huizi vibe con ogar y familia en borda llamada Choanicanea.
24. Juachin Escudero vibe con ogar y familia en borda llamada Portolo.
25. *Martin de Legarreta* vibe con ogar y familia en *borda* llamada *Danbolinenea*.
26. Martin de Huizi menaquerio vibe con ogar y familia en borda llamada Manchincha.

Handik hiru urtera, berriz, *jular* erdarazko izenez ageri zaigu, Estellako Gorteetan erregeari ordaindu behartako zergen errolda batean, 1729koan, Goizuetako etxeen zerrendan:

47. Choaniquenea, dos reales.
48. Barbero borda (Atataborda), dos reales.
49. *El jular*, dos reales.
50. Rosamonte, dos reales.
51. Aldaya dos reales.

Hor ez dago dudarik *el jular* hori euskarako danbolinari dagokiola, eta, zerrendako etxeen segimenduari begiratuz, *Danbolin borda* izan behar duela, ezinbestean. Hain juxtu, apeo hori egindako urtean hilen zen gure danbolin xaharra, baina gerora ere bere seme Jakobek segitu zuen Danbolin bordan. Hona 1745eko apeoan non ageri den, Tuterako Gorteetan erregeari paga behartako zergen zerrendan:

53. Aldaya, dos reales.
54. Rosamonte, dos reales.
55. *La de Jacobo de Legarrea*, dos reales.
56. Choaniquenea, dos reales.

Laster ikusiko duzu *Jakobe* hori Martin danbolinaren seme zela, baina hona non ageri zaigun *hijo de jular* gisan izendatua, Zangotzan preso 1704an. Bost soldadu goizuetar ziren preso zeudenak, eta haiei nolako laguntza eman behar zaien argitzen dizu pasarteak:

[1705-8-9, 84. or.] en las puertas principales de la iglesia, habiendose combocado a toque de campana [...] según vando del virrey en la ciudad de Sangüesa del dos de julio de 1704 , se resolvio se les de a los *soldados aprendidos* el socorro de a dos reales a cada uno por cada un dia y los que se allan presos al presente son cinco soldados llamados Juan Lopez de Garbiso, Bartolome de Salaberria, Thomas de Loyarte y *Jocobe de Legarreta hijo del jular*, [...] y se les de a cada par de zapatos.

Beste semea, berriz, *Martin Legarrea menor*, Ferminenean bizi zen 1745eko apeoan. Eta «en casa Baztanenea propia de M^a Alsua, avita Maria de *Danbolinen* con una criatura suia muy necesitada». Badirudi Maria behartsu haurdun hora ere gure danbolin xaharraren alaba zela, eta hartatik bere deitura: *Danbolinen*.

Lehenago ikusi izanen duzu nola esaten zen «Martin de Legarreta tamborin *residente* en esta Villa» behin eta berriz. Zergatik *residente* zelakoa nabarmendu nahia? Hain zuzen ere *vencindad* eskubiderik ez zuela adierazteko, nahiz berak egindako *Danbolin bordan* bizi. Herriko etxe baten jabe ez zenak ezin baitzuen legezko bordarik edo baserririk egin. Edo, bestela esan, *derecho de vecindad* edo herritar-eskubide osoa izatekotan, herriko etxe baten jabe behar zela izan. Oroitu sarreran Jose Inazio Antsorenak esandakoaz: «historian zehar danbolinak marjinazio latzak jasan ditu. Badakigu danbolina zenak edo izandakoak, ezin zuela kargu publikorik izan leku askotan». Esan liteke halatsukoa izan zela gure Martin Legarreta danbolinaren kasua ere. Hala eta guzi, oso legezko ez izan arren, borda egiten utzi zioten gure Martin danbolinari. Zirenak zirela, zorionak goizuetar errukior haiei.

3.2. Martin Legarretaz datu batzuk

Ez dut jaiotza-agiririk inon bilatu, baina badirudi 1650 aldean Arizkunen jaioa zela, eta, lehen esan bezala, 1729ko abenduaren 9an hila Goizuetan bertan. Baina, berriz ere 1678ko etxe-erroldaz baliatuz, ikus ditzagun haren bizitzako datu batzuk:

52. Otra cassa llamada *Aytaberro* que la posee Juan de Marticorena vecino desta villa, por bia de remate en la qual havita *Martin de Legarreta* con su familia.

53. En otro fogar y separacion de la misma cassa havita *Juan de Errazu* su suegro solo.

Ordurako ezkondua, *Aitaborro* etxean bizi zen familiarekin, beraz, gure danbolina 1678an. Aitaginarreba edo emaztearen aita *Joan Erratzukoa*, berriz, etxe bereko beste sukaldetan bizi zela dirudi, bakar-bakarrik. Suhia erkin oso ongi konpontzen ez zen seinale. Ez dakienari esan, Aitaborro etxea, baseria ez bezala, aspalditik erabat lur joa, Santione eta Pauleneko estarta bitartean zela, eta datu zehatzagoak nahi bazeatu, ikus *Goizuetako Etxeen Izenak* liburuko 30. orrian.

Elizako paperetan, berriz, honako datuok aurkitu ditut gure danbolinaz, don Esteban apezari esker. Ezkondu 1674ko azaroaren 11n egina zen *Magdalena Errazurekin* Goizuetan bertan, eta honako seme-alabok izandu zituzten:

Legarreta Errazu Jocobe, 1675-9-1 (fol. 200v).

Legarreta Errazu Josef, 1677-11-15 (fol. 210v).

Legarreta Errazu Maria, 1680-1-16 (fol. 225).

Legarreta Errazu Ana, 1681-6-25 (fol. 225).

Maria horren jaiotza-agirian honela dio aitaz: «Martin de Legarreta, *jular*», eta atautxi-amautxiak don Miguel Ignacio de Ercazti eta Maria Perez de Machinchon izan zituen. Ana horren jaiotza-agirian, berriz, hara zer dioen gurasoez, «ambos de los

godos». Agot kastakoak genituela, alegia, bai Martin Legarreta danbolina eta bai bere emazte Madalen Erratzukoa.

Alaba Ana horren testamentua ere ikusia nago Iruñeko Artxibo Handian (sig. 514146), xahartu eta oheratua bizi zela 1755ean egina, eta honela dio laugarren puntuau:

[...] declaro que la Casería nombrada *Damboliñanea* y su pertenecido que la poseo deve al Cavildo Eclesiástico un *censo de cincuenta ducados* a cinco por ciento cuio rédito correspondiente al plazo vencido el año último de 1754 satisface a D. Santiago Fagoaga Beneficiado de la Parroquial de dicha Villa.

Berea zuen, beraz, aita zenak egindako Danbolimborda. Ez jakin ordea nik zerenak ziren elizari kendutako berrogeita hamar dukat horiek. Beharbada Danbolimborda egiterakoan pilatutako zorrak ordaintzeko eskatuak? Auskalo. Bosgarren puntuau, berriz, honela dio:

[...] tengo un hermano llamado Joseph de Legarrea casado en el Reyno de Francia a quien y a todas las demás personas que pretendieren tener derecho a mis vienes dejó por parte de vienes raíces a cada robada de tierra en los montes comunes desta villa y por muebles a *cinco sueldos carlines* en lo qual les eredo.

Seigarren puntuak ere merezi du aipatzea, gure danbolinaren alaba Ana nolatsu bizi zen irudipen bat egiteko:

[...] tengo cinco arcas en esta casa de *Chemenea* donde me allo encamada, tres de ellas con sus llaves, y las otras dos sin ellas, ropa blanca, platos, jarros de estaño, ropa de vestidos, una *saja de estameña* y otras cosas a una con *treinta pesos* que en dinero tengo mas otra arca bazia que ay propia mia en dicha casería.

Danbolimbordan, alegia; eta hori guzia Mari Migel eta Agustina Anttoni Etxarri ahizpen artean banatzeko, hura zaintzen egiten duten lanaren eta gastuaren ariora. Kontuak hola, badirudi aitak egindako Danbolimbordan ondore eskasa izan zutela legarretatarrek.

3.3. Zoribeltzeko morboaz, azalpen batzuk

Martin Legarreta danbolinaren iloba baten auzia ere ikusia nauzu Iruñeko Artxibo Handian (sig.: 126064), Goizuetan gertatua 1719an. Honela dio epigrafeak: «Martin de Semper y Legarrea y Catalina Echeverria su muger contra Josef Antonio Onsari y Mariana de Ezcurra su muger, por palabras de injuria». Bi familien artean izandako istilu batzuengatik, Mariana Ezkurrak bereak eta asto beltzarenak esan baitzizkion: «tratándola de *sucia* y *agote* a Cathalina de Echeberria y dixo también era *deszendiente de agotes* Martin de Semper de Legarreta su marido, y de los *godos* que denominan así en dicha villa y zircunvecinas». Besteak beste, guri hemen dagokigun Martin Legarreak ongi defenditzen du bere burua, esanez aita Joanes eta aitonan Joanes Legarrea Antoniñena ere *Xenpereko Legarrea etxeokoak* zituela. Eta dio gainera Goizuetan, Leitzan eta Tolosan bizi direla beste senide legarretatarak, eta, besteak beste, *Leitzako Zabalone* eta *Aresoko Puñalgillene* etxeak aipatzen ditu beste ezkontideen jatorritzat.

Martin horren beste senide batek, Tolosan bizi zela, 1726an egindako exekutoria bat ere ikusia nauzu Leitzako Udal Artxiboan, ditxosozko odol-garbitasunari buruz. Honatx laburturik³:

Martin Joseph de Legarrea residente en la Villa de Tolossa y natural de esta Villa de Lezya en el Reyno de Navarra dize que para en conserbacion de su derecho y satisfacer de decreto expedido por la muy noble y muy leal Provincia de Guipuzqua en razon de limpieza de sangre y nobleza que devén dar las familias que residen en su distrito combiene se reciva ynformazion al thenor de los articulos siguentes cuio thenor provar entiendo para lo necesario:

1.- Que el dicho suplicante es hijo legitimo de *Juan de Legarrea y Maria Asencia de Chubia* su legitima mugar residentes en dicha Villa que lo tubieron y procrearon estando ambos casados legitimamente como lo manda la Santa Madre Yglesia y dispone el Santo Concilio de Trento y como a tal hijo suyo le criaron trataron y alimentaron en su casa y compafia [...] y por tal a sido y es tenido y por todos reputado sin duda ni cosa en contrario como todo es cierto [...].

2.- Que el dicho Juan de Legarrea padre del suplicante fue hijo legitimo de otro *Juan de Lagarrea y Maria de Arostegui* su legitima muger residentes que fueron en dicha Villa, y el natural de el lugar de *Sempere* de el Reyno de *Francia* y hijo nativo de la cassa llamada *Legarrea* sita en dicho lugar, y ella de la Villa de *Goizueta* de este Reyno, y como a tal hijo suyo le criaron trataron y alimentaron [...] como diran los testigos.



4. irudia. Legarreta etxea Senperen (X. Elosegi, 2015).

3.- Que la dicha Maria Asencia de Chubia madre del suplicante fue hija legitima de *Juan de Chubia y Maria Antonia de Zestau* residentes que fueron en esta Villa, y el natural de la de *Areso* de la cassa solar llamada *Martizenea* sita en dicha Villa de *Aresso*,

3 LUA, 46/57, 1731. urtea.

y ella tambien de la *cassa solar* llamada de *Estebaninea* sita en esta de Leyza [...] como diran los testigos.

4.- Que asi el dicho suplicante como sus dichos padres y abuelos paternos y maternos y todos los demas sus ascendientes y descendientes an sido y son chistrianos viejos limpios y de limpia y pura sangre sin raza ni mezcla de *judios, agotes, villanos, combersos* ni de otra secta reprobada por la Santa Ynquisicion ni an cometido delito alguno que les aia resultado nota ni ynfamia, y las *dichas casas de Legarrea y Marticenea* de donde proviene su descendencia paterna y materna an sido y son solares de *hijos dalgo nobles de sangre de origen* y dependencia y por ser asi todos sus dueños y demas descendientes de ellas an gozado y gozan de todas las esempciones prerrogatibas que tocan a los hijos dalgo de sangre y por ello mismo an ocupado y ocupan los cargos honorificos que se dan y confieren a los que son de semejante *calidad* como todo lo referido a sido y es publico y notorio y de ello a havido y hay publica voz y fama [...].

Zenbat kontu ergel, zenbat morbo antzu, zenbat orri aspergarri eta are nazkagarri idatzi ote da gai honetaz (eta nik oraindik gehiago. Barka!). Eta zenbat aurreritzi eta gutiuste zentzugabe hedatu gero etengabe, Euskal Herri osoan merkatu-sare turistikorik ergelenak sortzeraino? Goiko lau puntu inozo horietan ikusten da ederki auzi ergel honen funtsa: herriko etxe batean bizimodu finkatzeak eta familia Trentoko kontzilioaren arabera hazteak erabateko diziplina zekarren: soziala, ekonomikoa, kulturala, morala... Hartara makurtzen ez zen guzia: ...? Ezin konta ahala dituzu adjektiboak: *sorgina, ijitoa, herejea, judua, agota, odol gaiztokoa, konbertsoa, hugonota, godoa...* Beti bezalatsu, jakina, baina garaian garaiko moralak sorturiko adjektiboekin.

Ederki. Nola libratu ordea inor ijito, judu, agot izatetik, nahiz egun batean halako herritako etxeen bere familia finkatu? Edo nahiz etxearen beraren izena hartu?... Edo eskribauen irabazi hutserako odol-garbitasuneko exekutoria absurdoak egin? Mesedez!... Hona nere kontseilu inozo eta motza, Euskal Herriko kultura abertzale guzia estalia daukan merkatu barriobajero eta morboso honen aurrean: egunen batean inongo artxiboren batean nire kastako perurenatarren baten exekutoria edo odol-garbitasuneko agiria aurkitzen baduzu, bere armarri eta guzi aurkitzen baduzu eta azkarrago, segituan pentsa ezazu aldrebes: nire kastako perurenatarrok ez garela odol garbiko baskoiak, baizik eta gure odol nahasian ijito, agot, judu, moro eta beste mila iturritako odol gaitzatua daramagula zainetan, jakinik *raza* eta *azar* gauza bera izan direla beti.

Bai. Aurreritzi morbosoa eta konplexuak uxatzeko, apropos nabarmendu nahi izan dizut alderdi hau hemen. Gauza jakina baita menderik mende bertakotu diren agot, ijito, eta gainerako jende kastek euskal kulturan eta bereziki herri-musikan izan duten eragin erabateko. Eta nongo herri-musikan ez? Batez ere ijito kastakoek? Bakar-bakarrik sorgin-ehizako auziak ikustea aski, batez ere XVI-XVII. mendeetakoak, agot edo ijito kastako zenbat danbolin ageri den ikusteko. Eta koplaritzan edo dantzetan berdin, zenbat eta atzerago orduan eta esplizituago: *egiptanoak* nonahi. Baino kontuz! Euskaldunok Harri Aroko baskoiak omen gara orain! Hemen ez da sekulan ijitorik izan!... Nola ez egin barre? Inon ez baita Euskal Herrian baino barregarriago tratatu gai hau. Ikusi besterik ez, sabinismo puristak eta gerozko arrazakeria etarrak ugaldu duen kontraesan psikologikoa.

Bai, zorionez zer edo zer normaltzen hasi bada ere, oraindik konplexu izugarria nabari da gai honetan Euskal Herrian, batez ere abertzalean. Galdera xinple hauxe egitea aski: *zenbat euskaldun abertzalek aitortuko ote luke xalo demonio bere jatorri agotijitoa?* Egunen batean argitu beharko du norbaitek, besterik ez bada *Agotijitoak euskal kulturan* edo gisako tesi zintzo batekin.

Gure Martin Legarreta danbolinaren garaitik egundaino etorriz, honatx ttitta batzuk, beste milaren artean. Felix Urabayen-en *El Barrio Maldito* nobela ezaguna aztertzean, Mikel Aranburu Urtasunek esandakoak dituzu, Urabaienek bere garaiko herri-musika eta -dantza zeinen xehero eta zintzo deskribatu zituen erakutsi nahian:

Con nombre y apellido, el famoso *chunchunero* de Eskirotz, aunque nacido en Salinas, Javier Echeverría Navarla-z, *gitano y euskaldun*, que acudió contratado por el Ayuntamiento de Pamplona, según era costumbre secular del consistorio, para acompañar a los gigantes en las mañanas de San Fermín, desde 1847, año en que ya figura en el rolde municipal, hasta 1909. Falleció en plenos sanfermines el día 11 de julio de 1911 a la edad, aseguran, de cien años. Su original *tamboril* se conserva en el Archivo Municipal. Sin duda ostenta el record absoluto de años de servicio musicales a la Ciudad: sesenta y dos (marca que quizá haya batido, un siglo después, el gaitero Elizaga).

Si fijamos los sanfermines literarios en el recién estrenado siglo [XX], pudo tratarse de Pitxu el *txistulari de Amaiur* que fuera maestro del célebre *Antonio Elizalde* (padre del no menos popular Mauricio Elizalde y custodio cabal de la rica tradición folclórica de Baztán). Es muy pronto para el propio Antonio, aún demasiado joven ya que nació en 1882, coetáneo, por cierto, del novelista, que sí aparecerá contratado, con su compañero, en 1923. El escritor los descubre como *agotes, lo fueran o no*, ya que *interesa al fondo de la novela favorable a la raza menospreciada y solidaria con el débil*.

Nik, ahulik bada eta ahulenetakoa naizen agotijito honek, berriro diot: gauza bat dela ahulei eta despreziatuei xalo demonio laguntzea, eta beste bat, guztiz desberdina, halakoent kontura morbo ikaragarria piztea eta puztea, gero erruki faltsuzko merkatu politiko turistiko barriobajeroak perretxikoak bezala ugaltzeko (*Zugarramurdia, Santxotena, Bargota eta abar lekuo*), nahiz eguneroko bizimoduan gure «*kasta*» begien bistakoa disimulatzen eta estaltzen segitu, Harri Arorainoko baskoikeria barregarri eta zentzugabe baten izenean.

4. BIBLIOGRAFÍA

- PERURENA LOIARTE, P., *Trapuan pupua: Nafarkariko artikulu guztiak*, Donostia, Erein, 2001.
- PERURENA LOIARTE, P.; SALABERRI ZARATIEGI, P.; ZUBIRI LUJANBIO, J. J., *Goizuetako etxeen izenak*, Iruña, Pamiela, 2011.
- URABAYEN, F., *El barrio maldito*, Madrid, Calpe, 1925.
- ZUBIRI LUJAMBIO, J. J.; PERURENA LOIARTE, P., *Goizueta eta Arano herrietako hizkeren ezaugarri orokorrak*, Iruña, Euskara Kudeatzeko Nafarroako Iparraldeko Mankomunitatea, 1998.